

DATORRENA

Bideak eta bidegurutzeak

GORKA ELAJABARRIETA > 3

TXAPELA, TOPIKOTIK AT:

Euskaldunekin lotzen da, baina non eta noiz sortu zen misterioa da > 10

2018ko uztailaren 28a | XII. urtea • 579. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



SANTO DOMINGO BIZIRIK NAHI DUTE

GASTEIZKO BIHOTZ-BIHOTZEAN DAGO KOKATUTA, BAINA ASPALDITIK SALATZEN ARI DIRA UDALAK EZ DUELA ZAINTZEN SANTO DOMINGO KALEAREN TAUPADA ETA HILTZEN UZTEN ARI DELA. DUELA EGUN BATZUK ORAIN DELA HAMAHIRU HILABETE BERE ETXEAN HIL ZEN GIZON BATEN GORPUA AURKITU ZUTEN. BERTAKO BIZILAGUNEN USTEZ, SUFRITZEN DUTEN UTZIKERIAREN BESTE SEINALE TRISTE BAT. > 18

Jaizki FONTANEDA | FOKU



Estatu Islamikoaren ondoren, zer?
Atzerriko indarren jokaerak
zalantzak pizten ditu Sirian 04

Zenbat emakume eduki behar ditu
aurka Rodrigo Dutertek agintea
uzteko? 07

Euskaldunekin lotzen da, baina
txapela non eta noiz sortu zen
misterioa da oraindik 04

Gasteizko Santo Domingo
auzoaren oihua, entzun dezaten 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Bideak eta bidegurutzeak

08 **Oier Gorosabel:** Haurren femurraren buruaren nekrosia (Perthes)

09 **Iñaki Altuna:** 2017-2018, bizi-bizi

14 **Unai Gaztelumendi**

15 **Nekane Zinkunegi**

Barandiaran: Periferiaz

15 **Joxean Agirre:** Beroa

16 **Gaizka Amondarain:**

Atezainaren beldurra
penaltiaren aurrean

22 **Ana Elozegi Serna:** Arimaren minbizia: eta izoztu nintzen haur nintzela...



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Bideak eta bidegurutzeak

Ez da “E eguna” existitzen, ez ditugu sekula aldarrikatzen ditugun helburu guzti-guztiak lortuko, ez baita mundu perfektua existitzen, ezta existituko ere: independentzia, sozialismoa, herrien Europa, mundu justuago bat. Beti izango ditugu gauzak egiteko, hobetzeko, aldatzeko. Hori ondo barneratuko bagenu, nire ustez, bi ondorio nagusi aterako genituzke. Batetik, helburua bezain garrantzitsua dela bidea. Borrokaren bide luzea bihurgunez, atzerapausoz eta aurrerapausoz beterik dago. Ez da lineala, ezta erregularra ere. Bidean une lasaigoak eta aztoratuagoak egongo dira. Batzuk eta besteak ondo irakurri behar dira, erabaki politiko hobereak hartu ahal izateko. Bidean aurrera egin ahal izateko bidelagunak behar dira, bidean jarraituko duten militanteak beharrezkoak dira, bestela, bidea eten eta bidea ez ezik “bidaia” bea ere amaituko litzatekeelako. Ezin ahaztu zure aurretik beste batzuk ibili zirela, ez zarela zerotik hasten, beraiei esker ari zarela zu ere. Beraiek ikasitakoa, egindakoa, beraien lorpenak eta akatsak ezin dira bide bazterrean utzi, zure etorkizunaren kapital garrantzitsua baitira, iraganik gabe zailagoa baita etorkizuna eraikitzea. Eta zure ondoren beste batzuek jarraituko dute bidea; jarraituko duenik egongo dela ziurtatu behar duzu. Borroka hari luze bat da, elkarrekin josi beharreko haria.

Bestetik, norberaren ekarpen bitala, militantea, zein izan behar den ondo asmatzen jakin beharra dago. Nire ustez gutako bakoitzak eta guk talde edo belaunaldi bezala bi eginbehar nagusi dauzkagu. Euskal Herria jaso genuena baino egoera hobean uztea, eta, esan bezala, bidea jarraituko duten belaunaldi berriak borrokari lotuko direla ziurtatzea.

Zer esan nahi du Euskal Herria aurkitu genuena baino baldintza hobean uzteak? Hor dago koska. Tarteko helburuak zeintzuk izan behar diren asmatzeak berebiziko garrantzia dauka. Okertzeak frustrazioa, ezinegona eta bidaia zein taldea bera apurtzea eragin ditzakeelako; desmenbrazioa. Baina helburuen zehaztapenean okertzeak asimilazioa, akomodazioa eta abar ere eragin di-

tzake. Utopikoak izan behar dugu, baina errealistak izanik eta oinak beti lurrean mantenduz.

«Mendi tontor altu batera igotzen zarenean, askoz gehiago ere igo beharko dituzula jabetzen zara», esan zuen Nelson Mandelak bere helburu politikoez, militantez, bitalez, borrokaren helburu orokorreaz hitz egiterakoan. Eta arrazoa zuen. Kartzelatik atera zeneko bere esperientzia politiko berrien inguruan liburu berria atera du Mandla Langak, Mandela berak idatziriko apunte eta ideiak oinarri harturik, eta, nola ez, izenburua oso adierazgarria da eta ideia horrekin loturik dago: “Dare no linger”. Euskarara itzulita, “ez ausartu atsedean hartzera” edo izango litzateke.

Euskal Herriko borroka urrutira eraman dugu, tontor asko igo ditugu bide luze horretan, eta oraindik beste horrenbeste ditugu igotzeke. Bidea egiten jarraitzeko gero eta gehiago izan behar gara, sua ezin da itzali. Argi dago gatazka politikoaren ondorioak modu integralean konpondu behar direla, urgentziaz, eta horrek preso, iheslari eta deportatu guztien kaleratzea, etxeratzea eskatzen duela nahitaez. Horrekin batera askapen proze-

«Mendi tontor altu batera igotzen
zarenean, askoz gehiago ere igo
beharko dituzula jabetzen zara»,
nabarmendu zuen Nelson Mandelak

sua aurrera eramaten jarraitu behar dugu, gatazkaren arrazoi politikoek bizirik eta inoiz baino ageriago dirau-telako, Katalunian argiki ikusi den moduan. Bidea asmatu, adostu eta ibili behar dugu eta bidegurutze bakoitzean norabide zuzena asmatu. Estatuarekin erabakitze eskubidea errespetatuko duen akordiorik ezin bada erdietsi, azkeneko hamarkadek erakutsi duten bezala, aukera horri aterik itxi gabe aurrera jarraitu beharko dugu, bide propio eta berriak ibiliz, agian beste batzuekin batera, bai Euskal Herrian bertan bai estaturik gabeko beste nazio batzuekin. Izan ere, gure joko zelaiak berdina izaten jarraitzen du: alde batetik, Estatu espainiarra eta Estatu frantsesa, eta, bestetik, Europa. •

ETA ORAIN, ZER?

Siriako ipar-ekialdean Estatu Islamikoaren aurkako guda amaituta, atzerriko indarren jokaerak zalantza pizten du

 POLITIKA / GAUR8

Orain artean AEBek eta Mendebaldeko potentziek nagusiki kurduak osatutako SDF miliziak babestu dituzte Estatu Islamikoaren kontrako gudan. Baina Estatu Islamikoa ia garaituta dago eta kurduak beldur dira babesik gabe aurre egin beharko ote dieten Turkia eta Siriako gobernuen asmoei. Jihadismoaren eragina, gainera, ez da desagertu.

Estatu Islamikoa Estaturik gabe geratzeko zorian dago. Azken ofentsiba martxan dago dagoeneko, eta, SDF Siriako Indar Demokratiakoak aliantzako buruek ez badute egun zehatzik eman nahi ere, aste gutxi barru bukatuko

dela uste dute. Aliantzaren ahalegina jihadisten azken bi gotorlekuak bereganatzea da; bertan 10.000 jihadist inguru daude, helmen motz eta er-taineko arma arin ugariekin. Jihadisten gotorlekuetako bat Siriako Deir Ezzor probin-tziako hego-ekialdean dago. Bestea izen bereko hiriaren

Kino Gabriel, SDF miliziako buruzagi militarra.
Cristina Solias-Ricardo Garcia

ekialdean, Irakeko mugan. «Denbora hartu nahi dugu lurralde osoa ondo garbitu du-gula ziurtatzeko, zelula ezku-turik ez geratzeko», adierazi du Kino Gabriel SDFko buru-zagi militarrek.

SDF, ALIANTZA MULTIETNIKOAK

Kurduak, arabiarrek, asiria-rrak, armeniarrek, turkomano-ak... biltzen ditu SDF aliantza multietnikoak. 2015etik elka-rrekin borrokatzen dute guz-tien Estatu Islamikoaren aur-ka. Hala ere, “The Economist” aldizkariaren arabera, milizia-ko kideen %60 inguru kur-duak dira. Astekari horrek dio-enez, YPG Herriaren Babes Unitateak milizia kurduaren filiala da SDF. Horrela dela onartzen bada, Estatu Islami-koaren aurkako ofentsibak kurduen esku utzi du Siria osoaren %30 inguru, 2011n kurduen esku zen lurraldearen bikoitza.

SDFk Siria laiko, demokrati-ko eta federalaren alde borro-katzen du. Horrek Mendebal-deko potentziek milizia maila guztietan laguntzea erraztu du. Erresuma Batua, Alemania eta Frantzia, baina batez ere AEBak, militarki eta logistikoki konprometitu dira SDFrekin.

«Nazioarteko koalizioko ki-deak terrorismoaren aurka bo-rrokatzeko hitzarmen bati es-ker etorri ziren herriotara. Eta denek dakite hori», azaldu du Mustafa Bali YPGko eledunak.

Lekuan bertan oso erraz an-tzematen da zeintzuk diren es-tatubatuarren base militarrek, Iraken edo Afganistanen erabi-litako kanpo egitura eta segur-tasun sistema berberak dituz-telako. Horietako batzuek hegazkin handientzako lurrez-ko pistak ere badituzte. Egun-kari honek aireontzi estatuba-



tuar baten lurreratzea ikusi ahal izan zuen Kobanetik hurbil den base batean.

ZER EGINGO DUTE AEBEK?

Datozen hilabetei begira, honakoa da galdera nagusia Sirian: zer gertatuko da Estatu Islamikoaren aurkako gerraren ondoren? Izan ere, behin Estatu Islamikoa mendea hartuta, AEBek Siriatic alde egingo dutela da kurduen artean beldur handienetarikoa bat.

«Nire ustez, nazioarteko kolizioak inguru honetan jarraitzeko behar morala du. Sakrifizio handia egin da eta orain ezin dute hutsune hori utzi, erregimena eta bere aliatuak kontrola hartzen saiatuko baitira», adierazi du Gabrielekek. «Gutxienez, denok duintasunez bizi ahal izateko moduko Siriarako irtenbide politiko bat lortu arte geratu beharko lirateke», gaineratu du.

Momentuz, kurduak eta erregimenak 2011ko errebolatik elkarri ez erasotzeko indarrean izan duten hitzarmena errespetatzeko asmoa omen dute. «Gerraren hasieran ez genuen alderik hartu, ez erregimenaren ez oposizioaren alde. Horregatik, orain eman beharreko hurrengo urratsa irtenbide politiko bat bilatzea dela uste dugu, Siriako alde guztiak kontuan izango dituen irtenbidea», nabarmendu du Balik.

«Ez dugu nahi Damaskoren aurkako gatazka zuzenik. Benetan zer nahi duten jakin zain gaude», azaldu du Kino Gabrielekek. Bera ere irtenbide politikoaren alde dago. «Ez dut uste erraza izango denik akordioa lortzea, baina ezta ezinezkoa ere. Erregimenaren esku dago aurretik siriarren interesak jartzea edo Sirian haien

boterea handitu baino nahi ez duten aliatuenak».

SDF, Al-ASSADEN ARAZOA

Kontuak kontu, Baxar Al-Asad presidenteak berak SDF Sirian geratzen den azkenengo arazoa dela adierazi zuen RT telebista errusiarrean egindako azken elkarrizketan. «Bi modutan arituko gara haiekin. Negoziazioari atea irekiko diogu lehenik, eta, porrot egiten badu, lurraldeak indarrez askatzeko kanpainari ekingo diogu», nabarmendu zuen.

Al-Assadek agerian utzi nahi izan zuen berarentzat arazoa SDFk atzetik AEBak izatea dela. «SDF siriarrak osatzen dute, eta ez dute AEBen txotxongilo izan nahi. Gauza bat esan eta gero beste bat egiten dute es-

tatubatuarek. Horregatik alde egin behar dute. Nolanahi ere, joan egingo dira», gaineratu zuen Al-Assadek.

Mendebaldeko potentziek atzera egiten badute, Turkiarekiko oreka apurtuko den beldur ere badira kurduak. Eta Ankarak helburu handiagoak izan ditzake, Afrinetik haratago. Oso ondo gogoratzen dute joan den urtarrilaren 20an gertatutakoa. Erdoganek, talde matxinoekin batera, gehiengoa kurdua zuen hiri hori kendu zien YPGko kideei. Eta ez Al-Assadek ezta nazioarteko aliatuek ere (Errusia eta Iran) ez zuten ezertxo egin.

«Huts egin digute AEBek eta mundu osoak, turkiarrek Afrin eraso zutenean ez zutelako gelditzeko ezer egin. Kobanen

borrokatutako jende bera ari-tu zen borrokan Afrinen, baina denek itsuarena egin zuten», gaitzetsi du Mustafa Balik.

RAQQAK EMAKUME AURPEGIA DU


Balik beste ohar bat ere egin nahi izan du. «Estatu Islamikoaren aurka borrokatzea ez da bakarrik arazo militarra. Bere pentsaera ere borrokatu behar da». Eta arrazoi osoa du. Izan ere, borroka militarra bukatze-ar dago, baina, aldiz, Estatu Islamikoaren ideologiaren aurkako borroka hasi baina ez da egin.

Estatu Islamikoaren aurkako borroka ezin da ulertu Raqqa gabe. Lau urtez kalifa herriaren hiriburua izan zen, joan den urriaren 17ra arte. Egun, berriz, emakume bat da berta-


ko burua. Hain zuzen ere, Leila Mistefa industria-ingeniaria da hiria kudeatzen duen Kontseilu Zibileko burua. Ez du bere burua beloarekin estaltzen eta alkandora eta prakak janzten ditu. 29 urte eskasekin, hiriko hiru komunitateak integrazteko erronka zaila du aurrean: kurduak, asiriarrak eta gehiengo diren arabiarak. «Etnien arteko konfiantza berreskuratu behar dugu. Beharrezkoa da bestea ulertu eta onartzen ikasteko heziketa plan bat».

BARKAMENA

Adiskidetzeta suspertzeko lelo bat ere sortu dute Raqqan: «Barkatu barkatzeko gai zarela sentitzen duzunean». «Hitz horiek erabiltzen ditugu denok



Leila Mistefa, Raqqako Kontseilu Zibileko burua, bere bulegoan. Cristina Solias-Ricardo Garcia



aldi berean ezin dutela barkatu ondo dakigulako. Jende asko hil da», azaldu du Mistefak. Hiria berreraiki eta minari aurre egitez gain, pentsaera islamista erradikala desagerraraztea ere funtsezkoa dela ondo daki. «Kalean ere ikus dezakegu oraindik, baina desagerraraziko dugulakoan gauden, ez zelako berez Raqqakoa. Inposatutakoa zen».

Raqqako kaleetan erraz ikus daiteke kalifa herriaren garaian hedatutako islamaren bertsio desitxuratua sakon sartu dela biztanle askoren bizitzetan. Izan ere, jihadisten aldekoek zein kontrakoek muturreko ohitura kontserbadoak berenganatu dituzte. Oso zaila da kalean emakume bat nikab gabe ikustea eta gizonek emakumeak begiratzea saihesten dute. Gainera, Estatu Islamikoaren presentzia oso aktiboa da oraindik ere. Zelula

klandestino asko geratzen dira eta astean bizpahiru eraso egiten dituzte. Poliziaren eta Armadaren kontrolen aurka tiro egin ohi dute. Egunkari honen bisitan zehar, hiriko haur-parkerke batetik hurbil gertatu zena bezalako tiroketa.

«Atzerritarrak ziren Estatu Islamikoa sortu zuten gehienak. Raqqako siriarrak ia ez zuten zerikusirik izan», azaldu du Mistefak, Eufrates ibaiaren aurrean dagoen erakin batean kokatutako bere bulegoan. Badaki zertaz ari den, Raqqan bertan jaio zen-eta bera. Kontatzen duenez, jihadistak iritsi zirenean, kontrabandista talde bati ordaindu behar izan zion ihes egiteko. Populazioaren gehiengoak kurdua den lurraldean bilatu zuen babesa, bera ere kurdua baita.

Mistefak segurtasun neurri gogorrak jarraitu behar ditu. Ez du Raqqan lo egiten: egune-

ro joaten da gehiengo kurduko guneetara, bertan errazagoa baitu babesa aurkitzea. Egoera zaila da, baina berak esaten du lanaren zatia dela.

Hiria kudeatzen duen Kontseilu Zibileko aurreko burua, Omar Aloush, hil egin zuten. Mahai gainean du Mistefak bere mentorea zenaren argazkia. Gatazkaren azken momentuetan Estatu Islamikoko dozenaka borrokalari Raqqatik irteteko operazioa koordinatu

Galdera nagusia hau da: zer gertatuko da Estatu Islamikoaren aurkako gerraren ondoren? Behin Estatu Islamikoa mendeen hartuta, AEBek alde egingo duten beldur dira kurduak

Raqqako kaleetan erraz ikus daiteke kalifa herriaren garaian hedatutako islamaren bertsio desitxuratua sakon sartu dela biztanle askoren bizitzetan

Mustafa Bali, YPG milizia kurduko eleduna.
Cristina Solias-Ricardo Garcia

zuen gizona, Tal Abiaden, Turkiako mugatik hurbil, zuen etxean hil zuten. Orduetik, Mistefak ordezkatu du. «Aloush bezalako pertsona batek Turkiaren planak oztopatzen ziotuen», dio hunkituta. Oraindik ez du dolu jantzia kendu.

NAZIOARTEKO LAGUNTZA

Aloushen sakrifizioari nola-baiteko zentzua emateko, nazioarteko erantzukizunari dei egiten dio Mistefak. «Borroka honetan Raqqak bere burua eskaini du, milaka zibil eta Siriako Indar Demokratikoko militar ugari hil dira hiria askatzeko. Orain nazioartearen laguntza behar dugu». Horren erakusle da Leila Mistefaren bulegoko itxaron gelan dagoen ilara handia: berarekin elkartzeko zain dauden gehienak hiria berreraikitzen laguntzen ari diren gobernu kanpoko erakundeetako kideak dira.

Mistefaren idazkari Om Yosufek askatuta sentitzen dela onartu du. «Estatu Islamikoa hemen zegoen bitartean, ez ginen etxetik atera ere egiten. Ondo jantzita ez zindoazela esan eta haien dendetan jantziak erostera behartzen zintuzten; beti jantzi beltz oso zabalak ziren, neurrigabeko prezioetan saltzen zituztenak». Zazpi hilabete ondoren, jantzi beltza gordeta, makillajea, koloretako zapia eta gona estua daramatza Yosufek.

Agurtu aurretik, kalifa herriaren garaian emakumeek zituzten txantxetako bat bota digu Yosufek, toki guztietan bezala, Raqqan bertan ere umoreak lekua baitzuen unerik zailenetan ere: «Estralurtar batek espaziotik behatu izan bagintu, emakume guztiak asfaltoaren gaineko euli pila bat ginela pentsatuko luke!».



Ted ALJIBE | AFP



IKUSMIRA

ZENBAT EMAKUME EDUKI BEHAR DITU AURKA RODRIGO DUTERTEK AGINTEA UZTEKO?

Rodrigo Duterte Filipinetako presidenteari aurkariz betetzen zaizkio kaleak. Horrela gertatu zen astelehenean, diskurtsoa Kongresuan eskaintzen ari zen bitartean. Milaka lagun elkartu ziren agintariaren joera faxista eta misoginoak salatzeke, emakumeek sekulako protagonismoa izan zuten mobilizazioan. «Erregimen matxista-faxista» ezarri izana leporatu zion Joms Salvadorek, #BabaeAko (Ni emakumea naiz) kanpaina abian jarri duen taldeko kideak. Kolore politiko ezberdinetako emakumeek bat egin

dute Duterteren aurkako jarrerarekin. Ez da harritzekoa. Orain aste batzuk ekitaldi politiko batean ezpainetan musu ematera behartu zuen emakume bat, eta gero esan zuen politika egiteko bere modua dela, ikuskizunak eskatzen duen zerbait. Esan zuen agintea utziko lukeela eskaria «nahikoa emakumek» eginez gero. «Sentimendua elkarren artekoa da: berak emakumeok gorrotatzen gaitu, eta guk gehiago gorrotatzen dugu bera», diote feministek. joseangel.oria@gaur8.info



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Haurren femurraren buruaren nekrosia (Perthes)

Gaurkoan gaixotasun arraroen artean hain arraroa ez den bat komentatzera gatoz, 10.000 umetik bik sufritzen dutena: tekniko-ki Legg-Calve-Perthes izena du, 1910ean hiru medikuok deskribatu baitzuten. Labur esateko, femurraren buruaren nekrosia da, odol-fluxuaren gabeziaren eraginez. 3-12 urte artean gerta badaiteke ere, intzidentzia nagusia 5-7 urte arteko haurretan gertatzen da, gehienbat mutikoetan. Gaixotasunaren jatorria ez dago argi, eta, ondorioz, faktore asko aipatzen dira: artikulazioan aurretik izandako arazoak, hezurren hazkunde prozesu atzeratua, odolaren koagulazioaren desorekak, arazo endokrinoak, traumatismoak, ginkargak, faktore genetikoak edo haurdunaldian gertatutako gorabeherak.

Perthesen gaixotasunaren jatorria ez dago argi beraz, bai, oster, arazoaren fisiopatologia: odol fluxuaren faltan, femurraren buruaren zati bateko hezur-zelulak hiltzen dira, eta, ondorioz, hazkunde prozesua nahastu egiten da. Egoera hori normalean umea herrenka hastean bistaratzen da; beste sintoma arruntena mokorretik izterrera hedatzen den mina izaten da, eta horren ondorioz muskulu batzuetan gertatzen den atrofia eta bestee-tan ematen den kizkurdura. Mokorra-ren mugikortasuna ere mugatuta egoten da, eta mina eta herrena aktibitate fisikoarekin areagotzen dira. Diagnostikoaren konfirmazioa, halere, erradiografietatik etortzen da: Perthesen gaixotasunak fase karakteristikoak ditu, eta horiek identifikatuz arazoa zein egoeratan dagoen eta zein aldaera dituen zehaztu daitezke, tratamendu egokia emateko behar-beharrezkoa den informazioa. Esan

behar da zenbat eta diagnostikoa goiztiarragoa izan, pronostikoa hobea izaten dela.

Tratamenduaren oinarri nagusia femurraren burua bere lekuan mantentzean datza, pelbiseko artikulazioan alegia, biek hazkunde prozesuan zehar forma borobila berreskura dezaten. Hori lortzeko teknika desberdinak erabiltzen dira, kasuaren ezaugarrien arabera: medikuntza aldetik botikak edo tratamendu kirurgikoa erabil daitezke; ortesiak edo igeltsuak ere badute aplikazioa, artikulazioari atsedena emateko eta karga kentzeko; fisioterapiaren aldetik, kinesiterapia erabiltzen dugu artikulazioen mugikortasuna eta indar muskularra mantentzeko. Horrekin batera, garrantzia ematen zaio femurra kargatzen duen ariketa fisikoa ekiditeari,

beste ariketa fisiko motak lehenetsiz (igeri egitea edo bizikleta, adibidez).

Bistan denez, tratamendua gaixotasunaren fasera egokitu behar izaten da: hasieratik berrosifikaziora doazen faseetan helburu nagusia hezurren forma egokia sustatzea izango da; behin osifikazioa burutu denean, errekupeazioak hazkunde prozesu osoan zehar jarraituko du, non hezurak bere forma heldua hartuko duen. Hortik aurrera, umetan Legg-Calve-Perthes izan duten nagusi askoren eboluzioa ona izaten da, bizimodu normala egiteko gai direlarik; kasu batzuetan, halere, mokorreko mina edo artritis izateko joera geratzen da. Kasu horietan, muskuluak eta artikulazioak indartsu eta malgu mantentzeak asko laguntzen du. •

www.abante.eus



Perthesen gaixotasunaren tratamenduan botikak, kirurgia eta fisioterapia erabil daitezke. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

2017-2018, bizi-bizi

Udan gaude, bete-betea, eta lan urte politikoa amaitu da, nahiz eta askotxo luzatu den. Lan urte politiko bizia izan da. Duela urtebeteko egoera eta gaur egungo egoera alderatzea besterik ez dago. Gauza asko gertatu dira, errealitate ugari aldatu dira. Zenbait kontu pentsaezinak ere bazi-
ren orduan. Hilabete batzuk zeramatzan orduan Emmanuel Macronek Frantziako Errepublikako presidentetzan, baina inork gutxik pentsa zezakeen urtebete geroago Mariano Rajoy ez zela Espainiako presidentea izango, eta, haren ordezt, Pedro Sanchez desagertuak hartuko zuela kargua, zentsura mozio bati esker.

Rajoyk begi bat Katalunian jarrita zuen, eta bestea bere gobernuari egonkortasuna emateko ahaleginean. Bietan, EAJ ageri zen, normalean Madrili mesede egiten: alde batetik, Kataluniako burujabetza prozesua zalantzan jartzen, eta, bestetik, primadera honetan, PPren aurrekontuei babesa ematen. Ustelkeriak eragindako zentsura mozioak hankaz gora jarri zuen hori ere.

Kataluniako prozesuak markatu zuen lan urte honen hasiera. Urriaren 1eko erreferenduma izan zuen gailurra. Izugarria. Halako prozesu baten indarra erakutsi zuen, baina baita mugak eta zailtasunak ere. Estatuaren muturreko itxikeria agerian geratu zen enegarrenez, Piolinen irudi groteskoa eta guzti. Kataluniako Errepublika egikaritzea zenbaitek iragarri baino zailagoa izango dela bistakoa da egun. Urriaren 3ko Espainiako erregearen mezuak eta 155. artikulua aplikazioak gaititu beharreko hormatzarren tamaina erakutsi zuten. Epaitegiei hartu zuten errepresioaren eta zapalkuntza-
ren eguneroko gidaritza, hedabideetan Puigdemont barregarri uzten saiatzen ziren bitartean. Baina, azkenean, kukuak oker jo die, eta haiek geratu dira barregarri Europako zenbait epailek Auzitegi Gorenaren delirioa agerian utzi eta gero. Gatazka politikoa bizi-bizi dakusagu berriro. Hori bai, oraintxe gako nagusia barruan dute, burujabetzaren aldeko indarren norabidean. Sanchezen aldartea baino askoz garrantzitsuagoa izango da hori

sia barruan dute, burujabetzaren aldeko indarrek norabidea berreraikitzeke betebeharrean. Sanchezen aldartea baino askoz garrantzitsuagoa izango da hori.

Duela urtebete jakin bagenekien ETAk bere zikloari buruzko eztabaida hasia zuela. Iragarria zuen 2017ko apirilaren 8an armagabetzea egin zuenerako. Ez da hainbeste denbora igaro, baina sentsazioa bestelakoa da. Aspaldiko kontua dirudi armagabetzeak. ETaren eztabaidaren amaiera eta erakundearen desegitea maiatz honetan gertatu dira, eta sentsazioa bera da, hau da, denbora dezente gehiago pasa dela.

Mugimendu ezberdinak izan dira. Duela urtebete presoak erabat sakabanaturik zeuden, eta ordutik, gizarte zibilaren ekimenari esker, eta sortutako euskal ordezkartzaren bidez, Frantzian mugimendu esanguratsuak izan dira. Ez da hainbeste denbora pasa. Oraintxe, Espainiako Estatuan ere mugimendu batzuk egongo direla iragartzen da. Itxaropen izpi txiki

Katalunian, oraintxe gako nagusia barruan dute, burujabetzaren aldeko indarren norabidean. Sanchezen aldartea baino askoz garrantzitsuagoa izango da hori

bat behintzat piztu da. Goizegi da, horratik, segurtasunez hitz egiteko.

Eta aldaketa esanguratsuaren erdian eztabaida politikoa ere berpiztu da gurean. Nork esango zukeen lan urte politikoaren hasieran Gasteizko Legebiltzarreko Autogobernu Batzordeak ezer emango zuenik? Arazo politikoaren muina agertu da berriro, eta hori ez da gutxietsi behar, kontuan hartuta, gainera, EAJren joera oso bestelakoa izan dela urteotan guztietan, eztabaida hil eta gure herria politikoki txirotzea izan baitu jokabide Urkulluren gidaritzapean.

Mugimendu eta berri asko, aurrera begira jarraipena eta ondorioak izango dituztenak, hauteskunde zikloan sartzeko atarian gauden honetan. Oporren bueltan ez da girorik izango. •

TXAPELA, TOPIKOTIK AT

Euskaldunekin lotzen da, baina non eta noiz sortu zen misterioa da oraindik

Euskalduna eta txapela, modu naturalean egiten den lotura. Identitatea, tradizioa eta ohiturak. As-

palditik baino, betidanik pentsa genezake. Bidaiatzen dugunean eta baten bat txapela soinean ikusten dugunean, etxekoa dela pentsatu ohi dugu. Aitonak txapela zeraman, birraitonak ere... Herriko jaiak ospatzeko janzten dugu. Irun zein Hondarribiko alardeetan ezinbesteko elementua da, Tolosako eskopeteroetan bezala. San Tomas Egunean herritarrek plazan zein dantzariak oholza gainean janzten dute. Pilotariei ere, txapeldun direnei, txapela janzten zaie, handia gainera. Zoriontzeko sinboloa. Autoritate bati zein omendu bati agurrarekin harrera egitean, txapela jaurtitzeko dio dantzariak amaieran aitortza gisa. Ertzaintzak gorri kolorekoa bere uniformearen txertatua, Euskal Herriko herri askotako udaltzaingoei bezalaxe. Eta Olentzerok beti soinean darama, beltza.

Artilezkoak dira txapelak, arinak eta goxoak. Oso erosoak eta sendoak. Ez dute ez urik ezta haize ufadarik iragazten uzten, horregatik ditugu bide-lagun, bereziki negu garaia iristean.

Bidelagun bai, horretaz ez dago zalantzarik, baina noiztik izan da horrela? Zaila da gaur egun txapelaren sorrera zehatz-mehatz adieraztea, bai puntu geografiko jakin batean bai historiaren egutegian. Adituek asko ikertu dute, ordea. Non ez dakigu, baina jakin badakigu ez zela Euskal Herrian sortu hemendik munduan barrera zabaltzeko, alderantziz baizik. Hori bai, heldu zenean gelditzeko egin zuen.

 **JENDARTEA** / Oihane Larretxea de la Granja

Artilezkoa, arina eta eroso. Artzain lanetan aritzeko. Gerran borrokatzeko. Kanean ibiltzeko. Euskal Herrian sustraituta dugu txapela, baina ez da hemen sortua. Zumalakarregi Museoak haritik tira egin du «Txapela... noiztik?» erakusketarekin. Bereziki karlistadek sustraitze horretan izan zuten papera aztertu dute, irudi ederrez.

Tolosako Elozegui txapel fabrikak 160 urte bete dituen honetan, Zumalakarregi Museoak haritik tira egin du gure gertuko historiako kapitulu entzutetsuetan txapelak izandako eragina azaltzeko. Hori horrela, «Txapela... noiztik?» erakusketa interesgarria zaba-

Mikel Alberdi, historialaria eta Zumalakarregi Museoako ikerketa saileko arduraduna.
Juan Carlos RUIZ I FOKU

lik da Ormaiztegin, abenduaren 2ra bitarte.

Mikel Alberdi historialaria da eta museoko ikerketa saileko arduraduna. Pasioz eta detailerik galdu gabe egiten digu kontakizuna. Datak, izenak, bixikeriak, lekuak... kapituluak josten ditu hari gardenez, kon-

taketa arin eta erakargarria ehunduz.

Argi dio: txapelaren iturria argitu gabeko gaia da. «Topikoa da pentsatzea euskaldunak betidanik txapelarekin ibili gabela». Dioenez, badaude XVI. mendeko aurrekariak dokumentatuta Tolosako artxi-boan. Erliche batzuetan gizonak ikusten dira txapela soinean. «XIX. mendea baino lehen ezagutzen zela badakigu, izan ere, XVIII. mendeko irudi batzuk ere badaude, baina gauza puntualak dira», dio.

Tolosako fabrikaren urteurrenaren harira berriki argitaratu den liburuan adituek jasotzen dutenez, «beharbada» txapelaren aurrekaria Europa osoan erabiltzen zen zabale- ra handiko jantzi errenazentista bat izan zen. «Baina batez



ere Flandria inguruan ikusi ahal izan dugu, garai hartako koadro kopuruagatik». Felipe Ederraren margo ezaguna ekarri du gogora: txapela dotore batekin ageri da, luma eta harribitxiekin.

Alberdik eransten duenez, «jakin badakigu» Euskal Herrian, XIX. mendearen hasieran «ia inork» ez zuela txapela janzten, bai ordea Pirinio inguruetan. Gehienek, monterak eta antzeko kapelak janzten zituzten orduan. Biarnoko irudi bat erakutsi digu Alberdik, leeroon alboan ikus daitekeena. Bertan ehiztari bat eta artzain bat agertzen dira, biak ala biak txapelarekin. «Teoria nagusiek diote hortik heldu zela Euskal Herrira ohitura, poliki-poliki sartu zela, Nafarroatik». Dioenez, Alemanian, Frantzian eta Italian ere erabiltzen zen. Beste gauza bat da zehaztea lehen txapela non eta noiz sortu zen. «Hori bai, ia ikerlari guztiak ados daude Euskal Herrira Pirinioetatik eta Erronkaritik sartu zela esaterakoan».

TOMAS ZUMALAKARREGI

Txapelaren sustraitzean «erabakigarria» izan zen, ezbairik gabe, 1833an Tomas Zumalakarregi (Ormaiztegi, 1788-Zegama, 1835) karlisten buruzagi militar izendatzea. «Denek



Biarnoko antzinako irudi honetan, artzainak zein ehiztariak daramate txapela jantzita.

Zumalakarregi Museoa

onartzen dute antolatzaile aparta zela. Talde gerrillari sakabanatuak besterik ez zirenak armada bilakatu zituen urtebete eskasean. Eta behin armada egituratuta, txapela uniformean txertatu zuen, soldadu zein ofizialentzat. Erabaki hori oso garrantzitsua izan zen», dio historialariak.

Abantaila asko zituen, gainera, txapelak: artilea lortzea erraza zen eta soldaduak ondo babesten zituen, adibidez, euri petralaz. «Gainera, barruan metalezko xafla bat ezarritz gero, defentsa ona zen, bereziki goitik behera zetozen zaldikoen sablekada beldurgarrien kontra», azaldu du.

Karlistek ez ezik, hauen aurka borrokatu ziren euskal libe-ralek ere txapela hautatu zuten gerrarako, txapela gorria zehazki. Eta hemen ematen da, Alberdiren ustez, bitxikeria edo paradoxa, «oso interesgarria», nahiz eta nahasketarako bide eman eta jada uste ustela zuzentzea zaila izan: «Gaur egun 'txapelgorri' esaten dugunean, karlistekin lotzen dugu. Batez ere XX. mendekoa da lotura hori. Ordea, lehen karlistadan 'txapelgorriak' euskal liberalak ziren».

Lehen Karlistaldian Euskal Herritik kanpoko soldaduek erabiltzen zituzten buruko al-

«BERRETO VASCO» ITALIAN, «BASKER» SUEDIAN, «BASKENMÜTZE» ALEMANIAN

Munduko hainbat hizkuntzatan txapelari erreferentzia egiteko moduak berak agerian uzten du txapela euskal identitatearekin lotzen dela beste kultura batzuetan ere, gure mugetatik kanpo. Jatorria zehazteke egon arren, eta txapela Europa osoan erabili izan bada ere, horrek iradokitzen du hemen bezala ez dela beste inon errotu artilezko janzki hau.

Frantsesez *beret basque* esaten zaio, ingelesez *basque beret* edo *basque cap*, eta, italieraz, *berreto vasco*. Alemaniarrentzat txapela

baskenmütze da, eta, suediarrentzat, *basker*. Finlandian, berriz, *baskeri* deitzen diote.

Tolosako Elozegui txapel fabrikaren 160. urteurrenaren bueltan editatu den liburu ederrean (Xibarit argitaletxearen lana da) azaltzen denez, *boina* hitza latineko *birrun* (*birrete* gazteleraz) hitzetik etor liteke –okzitanieraz *berret*, eta, frantsesez, *beret*, *bonete*, *boneta* edo *boina* sinplifikatuz–. Beste teoria batek dio garai bateko *boilla* (“borobila”) hitz euskaldunetik *boina* bihurtu zela.

Lan berean adituek jasotzen dutenez, “txapela” euskal hitza latineko *caput* –alegia “burua”– hitzetik etor liteke, eta, hortik, *capellum* –hau da, “buruan eramaten dena”–. Frantsesez *chapelle* litzateke, gazteleraz *capelo* eta euskaraz “kapela” edo “txapela”, diminutibo gisa, “zuria” hitza “txuria” esaten den bezala. «Batzuek diote *boina* hitza Erronkarin eta Anson hasi zela erabiltzen, beraz, jatorri nafar-aragoarra duela. Hitz hori –dio liburuak–, 1800 inguruan erabiltzen hasi zela ematen du».


tu eta deserosoen aurrean, euskal soldaduek, karlista zein liberal, txapela arinak aukeratu zituzten. Koloreen aldetik, liberalen lerroetan gorria izan zen nagusi; karlistek, ordea, beste kolore batzuk ere erabili zituzten, baina garaiko akua-rela eta ilustrazioek ere gorria gailentzen dute. Zumalakarregi bera ere txapela gorria soinean agertu ohi da.

Hain zuzen ere, koloreen harira, Alberdik kontatu digu hainbat grabatu britainiarretan karlistak *chapelchurri* gisa agertzen direla, alegia, “txapel-zuri” bezala. Liberalak, berriz, *chapelgorri* bezala.

Lehen armadak egituratuta, eta gerra martxan, txapelak non egiten ziren ere ez dago argi. «Garai hartan ez dugu ezagutzen fabrikarik, baina oso urruti ez ziren izango, inguruan beharko zuten. Pentsa, Antonio Elaseguiren fabrika ireki zenean eskuz egiten ziren, bada, 30 urte lehenago ere, hala beharko zuen. Ez dakigu fabrika edo tailerren bat egongo ote zen, baina zerbait antolatuta izan beharko zutela pentsa daiteke. Ez dago arras-torik, baina».

ESPARTEROREN DEBEKUA

Txapela zuzenean karlistekin lotu zuen Espartero liberalen buruzagi militar nagusiak, 1838an ezarritako debekua medio. Isabel II.aren eskubideen eta Konstituzioaren aurka borroka egiten zutenek erabiltzen zutela salatu zuen. Hala, militar zein herritarrei debekatu egin zien txapela erabiltzea; araua behin hautsiz gero 80 errealeko isuna jasotzen zen, eta, dirurik ezean, bi hilabeteko kartzela zigorra. Zigorra bikoitza zen araua birritan hautsiz gero eta hirukoitza agindua hiru bider apurtuz ge-



ro. «Zentzu batean kontraesana zegoen, ‘txapelgorriak’ bere agindupean zeuden-eta».

Edozein kasutan, legeak ez zuen ondorio handirik izan jendeak ez baitzuen jaramonik egin. Baina horren gainean ikertzen, bitxikeria bat ere

Britainiarrak ilustratzailerik oso onak ziren. Ondo jaso zuten, akua-relaz, karlistadetan ikusitakoa. Behean, Maria de las Nieves de Braganza eta Dorregarai militar karlistak erabilitako txapela originalak. Juan Carlos RUIZ I FOKU - Zumalakarregi Museoa

XIX. mendearen hasieran, «ia inork» ez zuen janzten txapela Euskal Herrian, bai, ordea, Pirinio inguruan. Handik sartu zen antza Nafarroara, eta, bertatik, beste lurraldeetara



Txapelaren sustraitzean erabakigarria izan zen Zumalakarregi. Armada karlista osatu zuenean, txapela txertatu zuen uniformearen. Euskal liberelek ere erabili zuten txapela gudan

kontatzen dute erakusketan: Pietro Bubani botanikoarena. Italiarra jatorriz, landareak aztertzen eta sailkatzen zituen, eta lan horietan 30 urte luzez aritu zen Pirinioetan eta Euskal Herrian. Beti zeraman soinean txapela, eta arrazoi hori medio atxilotu zuten Iruñean 1844an, gerra bukatu eta bost urtera. «Oso gizon xelebrea omen zen. Atxilotu eta berehala, poliziaren susmoak eze-rezean geratu ziren gobernadorea, hainbeste landare eta abar ikusita, ez zela ez karlista ez ezer ohartzearan. Aske utzi zuten, baina txapela kentzeko gomendioarekin», dio Alberdik. «Zentzuzko gomendia,

nik, aitzitik, jarraitu ez nuen», irakur daiteke italiarrak pasarteaz idatzita utzi zuen egunerokoan.

Bubaniren atxiloketa jazo eta bi urtera, 1846an, egindako Bausac deitutako autorearen grabatu bat ere badago ikusgai Zumalakarregi Museoan. “Aldeanos de la Merindad de Durango” deitua, bertan gazte bat eta agure bat ikus daitezke. Lehenak txapela darama, bigarrenak montera. Horrek, historialariaren iritziz, argi uzten du orduan moda edo ohitura aldaketa ematen ari zela, eta txapela iritsi, iritsi zela jada. «Mende erdian gaude, eta batzuek usadioak mantentzen





dituzten bitartean, belaunaldi berriak hasiak dira jada gauzak aldatzen».

Zumalakarregi Museoaren nortasuna eta jatorria aintzat hartzen badugu, berehala ohartuko gara eskuartean duten material gehienak gerrekin lotura duela.

AFRIKAKO GERRA

Afrikako Gerra izan zen hurrengo kapitulu belikoa, 1859 eta 1860 artean jazotakoa. «Une haietan foruak ez zeuden erabat ezabatuta, eta, hein handi batean, indarrean zeuden oraindik. Horrenbestez, euskaldunek ez zuten parte hartzen Espainiako Armadan,

baina jarrera hori nahikoa kritikatu izan zen garaiko hedabideetan eta oso gaizki ikusia Espainian. Egoeraz ohartuta, hiru aldundiek gerra talde bat sortuko dute: Euskal Tertzioak. 3.000 soldaduz osatutako lau talde ziren eta denek txapela eramaten zuten buruan.

Karlista eta liberal izandakoak oraingoan elkarrekin borrokan aritu ziren Afrika aldean, «etsai» beraren aurka. Garai hartan aldundien polizia ziren mikeleteak ere izan ziren Afrikako Gerran, euren uniforme-ko parte zen txapela buruan.

Gerretan txapelak izan zuen papera aztertzea gauza bat da, eta horretan aritzen dira Or-

Erdian, mikeleteak uniformeaz jantzita, txapela soinean. Goian, «La Flaca» aldizkari satirikoa. Behean, karlistadetako pasarte bat. Inon ere ez da txapelik falta.
Juan Carlos RUIZ I FOKU - Zumalakarregi Museoa

maiztegiko museoan. Beste gauza bat da, ordea, Alberdik ondo zehazten duen moduan, herrian, jendartearen txapelarekin garai berean gertatzen ari zena. Hori alde batera utzita, zalantzarik ez dago baieztatze-

Gerrak bozgorailu izan ziren txapelaren irudia hedatzeko. Errelato belikoak, gainera, munduan zehar zabaltzen dira. Horrek lagundu zuen «txapela=euskalduna» irudia eraikitzen

Artearen bidez ere haritik tira daiteke. Brontze Aroko Sardiniako irudi bat erakutsi berri du «Archeologia» aldizkariak. K.a. 2000. urtekoa da, eta, bertan, gizon txapeldun bat agertzen da

ko gerrak bozgorailu garrantzitsu izan zirela txapela hedatzeko, baita berau euskaldunekin lotzeko ere. «Gerren kontakizuna, gainera, munduan zehar zabaltzen da, eta, horrekin batera, irudiak ere hedatzen du. Horrek balioko du 'txapela=euskalduna' irudia eraikitzeko».

Afrikako borrokak bultzada handia eman zion txapelari, nahiz «gerra txatxu bat izan». Gidaren iritziz, ordea, «benetako zabalkundea» Bigarren Karlistadan heldu zen. Urtebete lehenago, gainera, 1858an, Elo-segui fabrika ireki zen. Antonio fundatzailea karlista zen, «karlista sutsua», Alberdiren hitzetan. Estimazioen arabera, 68.000 txapela egitera ailegatu zen. Eta egin kontuak, garai hartan eskuz egiten baitziren...

ARTEAK UTZITAKO LEKUKOTZAK

Baina gerrek ez ezik, arteak ere ematen dizkigu hainbat arrasto txapelaren antzinatasunaren inguruan. «Archeologia» aldizkari frantsesak duela gutxi argitaratu zuen Brontze Aroko irudi bat, Sardiniakoa, K.a. 2000. urte ingurukoa; bada, bertan, gizon txapeldun bat agertzen da.

Burgosko Erregearen Ospitaleko ateak 1526an landutakoak dira, eta, bertan, erromesak txapelarekin ikusi daitezke. Pontevedrako Tuy herriko katedraleko koroan ere, hondoratan ari den txalupan marinelak txapela darama.

Gipuzkoan ere badugu adibiderik, Alberdik aipatu eta Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorrean dagoena. Jeronimo Larreak 1600ean landutako tailan, gipuzkoarrak abarka eta txapelaz jantzita ageri dira, erromatarren kontra borrokan. Bataila galduko zuten edo ez... txapela ziur ezetz!



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Periferiaz

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Zalaparta eragin du Tuterako jaien hasierako suzirian gertatu denak. Lehen aldiz, txupina botatzerakoan hitza hartzeko ardura zuenak, Edurne Leon Erribera Intsumisoya elkarteko kideak, “Gora Tuteraz” eta “Gora Santa Ana” oihukatu dituelako, ohiko “Viva Tudela” eta “Viva Santa Ana” esaldiez gain. Zenbaitek urrats historikotzat hartu dute eta gogo onez egin diote harrera, 2018ra arte itxaron beharra esanguratsua bada ere, txupinazoan euskara presente egon delako. Euskara, gaztelaniarekin batera, ez dezagun ahaztu. Eta festa onak pasatzeko desioaz gain,

emakumeek jaiak aske bizitzeko eskubidea dutela ere aldarrikatu du Leonek. Beraz, txupinazo inklusiboa izan dela ondoriozta daiteke. Baina inklusiboa izateko ahaleginak min egin die betikoei, baztertzaileei, argi hitz egin da. Festak politikarekin nahastea leporatu diote, tuterar euskaldunak ez dagoela eta esandako hitzak erabat lekuz kanpo zeudela baieztatu dute. Txupina botatzeko ohorea horretarako erabili izanagatik kritikatu dute. Halako kritikak egiten dituztenek kontuan izan beharko lukete beren ezjakintasun eta gabeziak bistaratzen dituztela,

Tuteran euskal hiztunik ez dagoela esatea sekulako astakeria baita. Baina eremu euskaldun eta erosoagoetatik lezioak emateko ohitura dugunok ere hausnartu beharko genuke periferia hain homogeneousan sailkatzzen ditugun herrien artean aniztasuna dagoela. Gure konfort burbuilatik ez gaudela inori zer egin behar duen esateko moduan. Eta txupinak zalaparta sortu izanak edo bestengatik dirua kobratzeko asmoak eraman gaituztela Tuteraz edo Baionaz hitz egitera, egunerokoan geure ataritik harago Euskal Herririk badenik ahazten dugunok. •

Beroa

Joxean Agirre

Badirudi beroak materia oro dilatzen duela salbu eta materia grisa, alegia garuna. Neure esperientziatik ari naiz. Urte osoa igarotzen duzu arimako gozamenak, sormenak edo edertasunaren kontenplazioak ekartzen dituenak kantatzen edo goraipatzen, eta, udan sartzearekin bat, konturatzen zara gorputzekoak ez direla txikiagoak. Olatuen aparrarekin jolasean tarte luze bat aski da pozik jartzen zaituela ohartzeko; zuhaitz eder baten itzalean etzatea nahikoa da zoriona zer den sumatzeko; bazoaz Aiatik Oriora goitik behera bizikletan haizea beste frenorik gabe eta arteak edo inteligentziak ematen

ez duen euforia batek hanpatzen dizu bularralde; dozena bat sardina erre eta botila bat sagardo aurrean dituzula esertzen zara ilunabarrean Alabortzako kantinan, Pasaia badiari begira, eta norbait sentitzen zara. Termodinamikako lege arraro horren berri badakite egunkari serioetako zuzendariak eta udan sartzearekin bat hasten dira orrialdeak murrizten. Abuztua iristerako anorexiaren ispilu bihurtzen dira gurea bezalako hedabideak. Bazoaz hondartzara, eta, galerna txiki batek jotzen badu, kaio handiak bezala hegaldatzen dira orrialde bakanak, hegan doazela dirudi eta Katalunia, paterak, euskal presoak, Seaskako aldarrikape-

nak (portzierto, ordu hauetan beren pankartak astinduz ibiliko dira Senpere eta Ezpeleta arteko etapan) eta beste hainbat kezka; desagertu egiten direla ematen du. Baina ez dira joan, hozkailuan sartu ditugu eta Ferragosto-a igaro orduko udazkeneko lehen haizeekin batera itzuliko dira, gure garuna hasiko da berriro bere ohiko tamainara itzultzen. Ordurako Elsa Pataky eta enparauak ere joanak izango dira inguru hauetatik eta itzuliko gara arimaren gozamen betierekoak goatzera batzuk eta lanaren gurpil markurrera besteak, gizakiak udako zorion izpi labur horiek behar baititu, konforme biziko bada. •



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Atezainaren beldurra penaltiaren aurrean



GAUR8

Ezagun du aurpegieran. Egunak dira bazkalosteant fundamētuz lo kuluxkarik egin ez duela. Euliz josita dauka egongela. Behin baino

gehiagotan ahalegindu da honezkeror periodikoarekin intsektu hegalariai leihoz bestalderako askatasunera bultzatzen. Beraien hobe beharrez ari dela esan nahiko balie bezala zabaltzen ditu besoak leiho irekiaren parean zutik jarri eta ezezezera emandako aire kolpe bakoitzaaren ondoren, gorputz adarrak gorra eta beheara astinduz, atezainak penaltia jaurti aurreko segundoan nola, etxe barruko metro koadroak kanpotik datorren mehatxutik defendatzeko ahalegin etsian. Izaki ñimiño arrotz horiek sartu ziren bide beretik kanporatzeko asmo bakarri leial, eta ordura arte nagusi zen bakearen izenean zernahi egiteko prest.

Denetarik eduki arren ezer gutxi saltzen duen pareko dendan neguan

baino ozenago jartzen dute musika bero hauekin dominikarrek. Eulien antzera, barruraino sartzen diren dantzarako erritmoek gorazarre egiten diote kurtsoan zehar egindako merezimenduei esker azkenik iritsi zaigun urteko sasoiari. Bentiladorea aulki ondoan paratuta, hara eta hona gelditu gabe, haize ufada aringarriak demokratikoki barreiatzen.

Finalaren egunean Kroaziaren aldekoak ziren oiho gehienak auzoan. Ez zuen ulertzen oso ondo zergatik. Ekaitza lehertu zen gero. Hiri inguruan ari ziren erortzen tximistak, gero eta hurbilago, gero eta maizago. Non edo nondik jaurtitako bonbak ematen zuten, ikaragarria zen danbatekoa. Moskun euria goian behean izan arren telebistan Putin bekikirik busti gabe aterkipean ageri zen bitartean, Gasteizen ere zaparrada galanta ari zuela gogoratuko du jendeak etorkizunean. Futbolaria saria jasotzeko desfilatzen hasi zirenean jo zion tinbrea auzokideak: katuak etxetik alde egin ziola eta ea

bere terrazan zegoen begiratzerik bazuen. Ez zen lehenbiziko aldia izango. Terrazara irten eta han ikusi zuen lau hankako animalia zut, begiak zabal-zabalik berari so, burua arean makurturik, terrazako izkina baten jabe. Auzokideari han zegoela eta igotzeko esan zion. Bazekien ez zituela katuak maite. Berak ere ez. Semearena omen zen eta oporretan zenez, hari zaintzea tokatu.

Saiatu zen emeki terrazako izkinara hurbiltzen.

Katuak beldurra adierazten zuten aienek egiten zizkion. Eskua lehenengoz luzatu zionean lehen abisua, ahoa zabalik eta hortzak erakutsiz. Bigarrenetan salto batekin terrazaren beste aldera egin zuen ihes katu arreak, hesiaren eta hormaren arteko tartean ezkutatze. Ordubetez ahalegindu bazen ere, ez zuen katuari heltzerik lortu emakumeak. Gaua etxetik kanpo pasa beharko zuen azkenean. Bizilagunari ateraino lagundu eta mugimenduren bat egotekotan abisatuko ziola esanez agurtu zuten elkar. Irabazi zutenen ospakizunak eta galtzaileen negarrak bukatuak ziren telebistan ordurako. Mokadu bat egin eta sofán loak hartu aurretik oheratzea erabaki zuen. Logelako atea ireki eta terrazara irten zen lehenengo, egoera zein zen ikuskatzera. Arratsaldean aurkitu zuen leku berean zegoen katu, mugimendurik egin gabe, zuzenean berari begira, zernahi gerta ere, finala erabakiko zuen hurrengo mugimendurako gertu. •

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua



SANTO DOMINGO KALEA

Auzokideak batu egin dira Gasteizko Udalaren utzikeria salatzeke

 JENDARTEA / Ion Salgado

laz Santo Domingo kaleko bi atalondotako auzokideak kaleratu zituen Gasteizko Udalak, etxeak berehala behera etortzeko arriskua zegoelako. Oraindik ezin izan dute haien pisuetara itzuli, eta, dirudienez, irtenbidea ez da erraza izango. Behintzat beraien auzokideen babesa dute. Batu egin dira erakundeen utzikeria salatzeke.

Gasteizko erdigunean dago Santo Domingo kalea. Alde Zaharreko iparraldean, Santa Maria katedraletik gertu, Aldabe Gizarte Etxetik ehun metro eskasera. Hiriaren bihotzean dago; kokapen bikaina dauka, paregabea. Baina bertako errealitatea ez da Zabalguneko beste kale batzuetakoa. Kalearen egoera tamalgarrria da. Pasa den urtean kalea komunikabide askotan ere agertu zen, urrian Gasteizko Udalak bi atalondotako bizilagunak kaleratu baitzituen, etxeak berehala behera etortzeko arriskua zegoelako. 40. eta 42. zenbakietako bizilagu-

Santo Domingo kalean
hustutako atalondoak
kateekin itxi dituzte.
Jaizki FONTANEDA / FOKU

nek 48 ordu izan zituzten beren gauzak hartzeko. Urriaren 29an, amaitu ez den amesgaiztoa hasi zen guztientzat.

Hanane Borrouhoren ama eta ahizpa egun horretan kaleratu zituzten etxetik. Neska gazte horrek gogoratzen duenez, kaleratzea agindu baino lehen, Gasteizko Udaleko teknikariak noizbehinka pasatzen ziren bertatik. «Tartean behin etortzen ziren, baina ez ziguten esan arazoa hain larria zenik. Ur-ihesa bat zegoela soilik genekien», azaldu du.

Arazoak pasa den urtean hasi ziren, apirilean, Amvisak, Gasteizko urak kudeatzen dituen sozietate publikoak, 42. atalondoan ur kontsumo handiak nabaritu zituenean. Ur-ihesa La Caixa entitatearen pisu batetik zetorren. Bigarren solairuan zegoen eta teknika-

riek prezintatu egin zuten bisitatu ondoren. Halaber, lehenengo pisua ere prezintatu zuten, bertan hezetasunak eragindako kalte larriak agertu zirelako. Eta beheko solairuan zegoen pub bateko sabaia ere hondatuta zegoen.

Hainbat hilabete pasa ondoren, urrian, kalteak uste baino askoz larriagoak zirela ohartarazi zuen Gasteizko Udalak. Urriaren 26an argitaratutako txostenean jasotzen denez, ur-ihesa mantendu egin da –badi-rudi ur-ihesaren jatorria beste puntu batean egon daitekeela– eta erakinen egitura usteldu egin da. Hala, egun batetik bestera lehen aipatutako bi atalondotan bizi ziren auzokideak kaleratu egin zituzten. «Egun batean Udaleko arkitektoa etorri eta etxea behera etortzeko arriskua zegoela esan zigun, eta bi egun eman zizkiguten gauza guztiak hartzeko», dio Borrouhok, Udalak erabilitako moduak gogor kritikatu. «Ez ziguten denborarik eman gauzak prestatzeko, eta ez genekien zer egin. Ez ziguten inolako irtenbiderik eman», gogoratu du.

Borrouhoren senideek, beste auzokide askok bezala, ez zuten nora joan eta Udalera joan ziren, kexatzera. «Kexatu ginelako eman ziguten ostatu. Isilik geratuz gero, ez ziguten ezer emango», salatu du. Lehenengo asteetan, gainera, prozesua «kaotikoa» izan zen. «Ama eta ahizpa lau leku ezberdinetan egon dira pisu bat lortu arte. Aste bat igarotzen zuten apartahotel batean, hurrengo hotel baten...», gogoratu du, erakundearen inprobisazioa salatuz. «Ez zegoen ezer planifikatuta, arazoak sortu ahala hartzen zituzten neurriak». Auzokideek beraien gauzak uzteko prestatu duten



lonja adibide da. Kaleratzeak martxan jarri zirenean, auzokide askok ez zuten lekurik altzariak uzteko, eta senide eta lagunak pisuetan gorde behar izan zituzten. «Hilabeteak pasa ziren lonjaren aukera proposatu ziguten arte. Gainera, bertan izan den auzokide batek lekua zomorroz beteta da goela esan zigun», adierazi du.

Borrouhok azaltzen duenez, gaur egun auzokideak Gasteizko Udaleko pisuetan daude, baina ez dakite noiz itzuliko diren Santo Domingo kalera, oraindik ere ordaintzen ari diren etxeetara. Erakinetan egin beharreko obrek milaka euroko kostua dute eta gehienek ez dute dirurik lanak ordaindu ahal izateko. Gainera, antza denez, teknikariek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiteko baliatu dute egoera, eta, kale-

ratu dituzten etxeak berritu baino lehenago, arkeologoen lurpea aztertu behar dute. «Orain arte proiektua auzokideen artean ordaindu dute, baina gastuak igo dira eta Udalak esan du lanak era subsidiarioan egingo dituela», azpimarratu du Alvaro Anta Santo Domingo Bizirik plataformako kideak.

Hori arazo larri bat izan daiteke, formula horrekin egiten diren lanak bi urtetan ordaindu beharko direla aurreikusiten baitute. «Nola egingo dute auzokideek ordaintzeko? Auzokide batek ez du 20.000 euro ordaintzarik 24 hilabeteetan», adierazi du Naiara Bernal Santo Domingo Bizirik plataformako kideak. Ohartarazi duenez, orain arte Gasteizko Udalak ez du lanak era subsidioan egiteko formula erabili

Santo Domingo kaleko 40. eta 42. zenbakietako bizilagunek 48 ordu besterik ez zituzten izan etxeak utzi eta beren gauzak hartzeko. Urriaren 29an hasi zen amaitu ez den amesgaiztoa

Auzokideek salatu dutenez, lehenengo asteetan ostatu emateko prozesua guztiz «kaotikoa» izan zen. Pisu bat lortu arte, lau leku ezberdinetatik ere pasa dira familia batzuk

halako berritze proiektuetan. Inork ez daki zer gertatuko litzatekeen, esaterako, auzokideek ordainduko ez balute. «Teorian Udalak etxebizitza bahitu dezake, baina ez dago argi zer gertatuko litzatekeen», gaineratu du.

IKERLAN DIAGNOSTIKOA
40. eta 42. atalondoko egoerak mamu zaharrak birpiztu ditu

Santo Domingo kalean. 2016. urtean 38. atalondoko auzokideak kaleratu zituen Udalak eta 18. atalondoa aurretik zegoen hutsik. Alarmak piztuta daude, etxe ugari daudelako egoera larrian kalean.

Santo Domingo Bizirik plataformak egindako ikerlan diagnostiko batean azaltzen denez, kalean 38 eraikin daude, eta horietatik 35ek 50 urte baino gehiago dituzte. Are, 23 eraikinek ehun urte baino gehiago dituzte. Gehienek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa pasa behar dute aurten eta, txostenean azaltzen denez, jabeen erkidego ugari ezin dute aurre egin gastuei; pisu askotan pertsona bakar bat bizi da eta erkidego batzuetan bakarrik bi edo hiru lagun bizi dira. Eta ezin ahaztu atariotan bizi diren 40 familiak gizarte



Santo Domingo kaleko auzokideek hainbat ekimen antolatu dituzte bizi duten egoera salatzeko. Halaber, banderolak zintzilikatu dituzte balkoietan. Jaizki FONTANEDA | FOKU-SANTO DOMINGO BIZIRIK



zerbitzuen laguntza jasotzen dutela beraien oinarritzko beharrak asetzeko.

Badaude laguntzak zaharberritze lanak aurrera eramateko, baina bete behar diren baldintzak oso zorrotzak dira. Gainera, lanok egin ondoren jasotzen dira, «eta berandu iristen dira». Bernalek azaldu duenez, «Santo Domingoren kasuan arazo larriena da auzokideek ezin dutela dirua aurreratu obrak egiteko». Dioenez, diru laguntza aurretik jasotzeko, orain arte legeak auzokideen %70ek urteko 9.000 euro baino gutxiagoko errenta izatea ezartzen zuen. Santo Domingo Bizirik plataformak zenbait proposamen aurkeztu zituen araudi zorrotz hori aldatzeko, eta Zabalgune XXI enpresa publikoak onartu du ur-

teko errenta 15.000 euro baino gutxiagora igotzea. «Hori izan zen gure garaipen txikia, baina, hala ere, jabeen erkidego gehienetan ez da betetzen», gaineratu du. Plataformak nahi duena da laguntza aurretik jasotzeko baldintzak banan-banan aztertzea, familia bakoitzaren kasuaren arabera.

Aldaketa Alde Zaharreko biztanleentzat onuragarria litza-teke, izan ere, Santo Domingo kalearen kasua «icebergaren punta besterik ez da». Zentzu horretan, Manu Arakama Gasteiz Txiki auzo elkarteko kideak auzoak pairatzen duen utzikeria salatu du. «Ez dago benetako politika bat Alde Zaharra berritzeko, eta egoera horren ondorioa da Santo Domingo kalean ikusten ari garena», gaineratu du. Arakama-

Santo Domingo kaleko auzokideek manifestazio eta elkarretaratze ugari egin dituzte.
Juanan RUIZ I FOKU

ren ustez, Udalak auzokideei lagundu behar die, «baina orain arte kontrakoa egin du. Berain kezka ez da etxeak berritzera, beraiek Alde Zaharra baliabide turistiko bat bezala ikusten dute, eta ahazten dute zein den etxeen egoera». Alde Zaharraren gentrifikazioa eztabaida zaharra da, askotan hitz egin da arazo larri horri

Badaude laguntzak zaharberritze lanak aurrera eramateko, baina bete behar diren baldintzak oso zorrotzak dira. Gainera, laguntzok behin lanok egin ondoren jasotzen dira

Santo Domingo Bizirik eta Gasteiz Txiki auzo elkartearen ustez, kale horretan gertatutakoa «icebergaren punta» besterik ez da: arazoa Alde Zaharreko beste kaleetan ere errepika daiteke

buruz, eta Santo Domingo kalean gertatzen ari dena mesfidantzaz ikusten dute auzoan.

«Auziaz asko hitz egiten da. Kalea hil zorian uzten badute, pisuen salneurria jaitsi egingo da eta enpresa berriak sartuko dira apartamentuak eta negozio ‘modernoak’ egiteko», dio Bernalek. Hori ez gertatzeko, Santo Domingo Bizirik plataformak hiru esparrutan lan egiten du: etxebizitza, komertzioa eta elkarbizitza.

Elkarbizitzaren inguruan, Arakamak Santo Domingo Bizirik plataformaren barnean gaia jorratzeko talde bat sortu dela azpimarratu du. Talde horretan parte hartzen dutenen helburua da arrazakeriari, xenofobiari eta elkartasunaren aurkako jarrerari aurre egitea. «Guri gustatuko litzaiguke Gasteizko Udalak arazoari aurre egiteko neurri zehatzak hartzea, bitartekaritza politika bat martxan jarritz. Baina proposatzen duten irtenbide bakarra errepresioa da», kritikatzen du.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Irailetik aurrera Santo Domingo Bizirik plataformako kideak lanean jarraituko dute kale-ratutako auzokideen egoera salatzen. Kanean izango dira behin betiko irtenbide bat aldarrikatzeko. «Eta kaleko egoera ere salatzen jarraituko dugu. Udalak orain arte bete ez dituen konpromisoak bete ditzan eskatuko dugu. Lan luzea daukagu aurretik», dio Arakamak, Santo Domingo kaleko egoera konpondu ondoren Alde Zaharreko beste arazoei helduko dietela iragarritz. Eta datorren urteko hauteskundetara begira, Alde Zaharreko birgaitzearen aldeko konpromiso argia eskatuko diete alderdi politiko ezberdinei.

UTZIKERIAREN BESTE FROGA BAT: DUELA HAMAHIRU HILABETE HILDAKO GIZON BATEN GORPUA AURKITU DUTE SANTO DOMINGO KALEKO ETXEBIZITZA BATEAN



Egoera larrian daude Santo Domingo kaleko etxe ugari. Jaizki FONTANEDA | FOKU

Uztailaren 16an Gasteizko Udaltzaingoen eta Osasun Publikoko teknikariek gizon baten gorpua aurkitu zuten Santo Domingo kaleko pisu batean. Eduardo zuen izena gizonak, 55 urte zituen eta duela hamahiru hilabete hil zen. Inork ez zuen faltan bota, teknikariak bertara usain jasanezina ateratzen zelako hurbildu ziren.

Santo Domingo Bizirik plataformak ohar batean salatu zuenez, gizon horren heriotza Alde Zaharreko kaleak pairatzen duen utzikeriaren besta froga bat da. Pasa den urtean, ekainaren 26an, auzokideak Udalarai deitu zioten pisu batetik usain jasanezina ateratzen zela salatzeke.

Erakundeei premiazko neurriak hartzea eskatu zieten osasun publikoko arazo bat saihesteko.

«Zein izan zen Udalaren erantzuna? Hilabete bat pasa zen Osasun Publikoko teknikari batek txosten bat egin zuen arte, eta honek etxebizitzan sartu beharra nabarmendu zuen. Bi hilabete geroago auzokideek berriro salatu zuten egoera eta ikerketa berri bat egin zen. Usaina are txarragoa zela ohartarazi eta premiazko neurriak hartu behar zirela berretsi zuen teknikariak», azaldu zuten plataformako kideek. Hirugarren txosten batean, abenduan egindakoa, egoeraren larritasuna jasotzen dela ere gaineratu zuten.

«Eta hortik aurrera zer? Esandakoa, utzikeria... uztailaren 16ra arte: etxebizitza garbitzera sartu zirenean, aurreko jabearen semearen gorpua aurkitu zuten. Duela hamahiru hilabete hil zen. Zabor poltsa pila bat ere bota zituzten etxea garbitzen aritu ziren langileek. Norbaitek uste al du horrelako egoera bat Gasteizko beste auzo batean eman daitekeenik?», salatu zuten, Udalaren jokaera gogor kritikatu.

Zentzu horretan, Udaleko Gizarte Zerbitzuen jarrera kritikatu zuten. Izan ere, hildakoak gizarte laguntzak jasotzen zituen, eta Santo Domingo kaleko auzokideek ez dute ulertzen zergatik ez zuten segimendu bat egin.

Halaber, Osasun Publikoko arduradunen erantzuna kritikatu zuten, pisua gune infekzioso argi bat baitzen, bertako auzokideentzat arriskutsua.

Santo Domingo Bizirik plataformak Gasteizko Udalak gertutakoa ezkutatu nahi izan duela salatu zuen, asteartean Udaltzaingoen argiratutako partean aurkitutako gorpua berri eman ez zuelako. «Udalak Santo Domingo kalea hilerri bilakatu nahi du, baina ez genuen uste literalki zela», gaineratu zuten, eta kaleak bizirik irauteko lanean jarraitu dutela nabarmendu zuten.

Gasteiz Txiki auzo elkarteak ere salatu zuen gertatutakoa. Dolumina adierazi zien hildakoaren gertukoei eta izandako utzikeria kritikatu zuen. «Nola izan daiteke posible auzokide baten gorpua hainbeste denbora ematea pisu batean? Nola izan daiteke posible Udalak ezer ez jakitea?», galdetu zuen ohar batean.

Gasteiz Txiki nabarmendu bezala, auzokideek hiru aldiz salatu zuten usaina jasanezina zela, baina Udalak ez zuen neurriarik hartu.

«Gertatutakoa oso larria dela eta udal zerbitzuen erantzuna oso txarra izan dela uste dugu. Horregatik, ikerketa bat eskatzen diogu Udalarai, azalpen ofizial bat eman eta erantzukizunak argitzeko. Gure ustez, gauzak gaizki egin dira. Hori ukalezina da». Haserrea nabaria da: «Beste behin ere argi ikusten dugu erakundeen interes falta gure auzoaren egoera globalari buruzko hausnarketa bat egiteko».

Alde Zaharreko auzokideek hainbat ekimen antolatu dituzte bizi duten egoera salatzeko eta hobekuntzak aldarrikatzeko. Baina Gasteizko Udalak ez du erantzun publikorik ematen. GAUR8 berak ere auzoko egoerari buruzko informazioa eskatu zion Udal Gobernuari pasa den astean eta ez du erantzunik jaso.



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Arimaren minbizia: eta izoztu nintzen haur nintzela...

Euskal Herrian badago inoiz aipatzen ez den arazo handi bat. Landa eremuetan, herrietan zein hirietan ematen da. Berdin du hilabetearen bukaerara iristen zaren edo ez, maila ekonomikoa ez baita erabakigarria. Eta, nahiz eta nesketan gehiago eman, mutiletan ere ematen da heriotza isil hori. Tabua da gure herrian, sekretismo erabatekoan murgilduta dago. Minbizi ezkutu bat da: arimaren minbizia.

Belaunalditik belaunaldira pasatzen da birus bat izango balitz bezala. Eta era askotara harrapatzen du biktima: osabak iloba, anaiak arreba txikia, bizilagunak neska txikia, kirol hezitzaileak mutil gaztea, apaizak nerabea... Kasu gehienetan haurraren inguruko pertsona bat izaten da arazoaren sortzailea.

Denboran zehar maiztasun batekin errepikatzen da eraso. Beti haurrarekiko joko manipulatzailerik eta limurtzaile bat dago tartean, eta xantaia zerbait esaten badi: biktimak berak nahi izan duela, inork ez diola sinetsiko... Botere harreman bat da, adinean alde handia dagoelako, gutxienez bost urtekoa.

Herritarren %10-20 inguruk jasan dituzte sexu abusua haurtzaroan; kasuen %80an, gainera, haurraren inguruko gertukoren batek egindakoak. Euskal Herrian salaketa kopurua oso baxua da, kasuen %2 inguru soilik salatzen dira.

Abusu sexuarek haurrengan dituzten ondorioak izugarriak dira. Pertsona bere muin intimoan puskatzen da, bere arima izoztuz. Gainera, aita edo ama direnean erasotzaileak, haurraren sufrimendua handiago da, isilik eta sekretuan bizitzen baitu egoera.

Helduaroan, beste sintomatologia bat agertzen de-

nean, pertsonen traumak terapiaren bitartez osatzen saiatzen gara. Berriz, haurrekin lanean ari garenean, askotan haurra ez da ausartzen gertatzen zaiona esatera, beldurra-rengatik izututa eta izoztuta dagoelako.

Emakume eder bat ezagutu nuen, izugarritzko depresio-ekin, alkoholarekiko adikzioa zuena... Emakume haren ibilbidea izugarria izan zen psikiatratik psikiatrara, medikurik medikura: neurologoak, iriologoak, xamanak... Inork ez zuen lortu hura sendatzea; esaten zuenez, arimako minbizia zuen. Bere ama hil zenean, orduan bakarrik, ausartu zen gertuko pertsona bati aitak behin eta berriz egiten zizkion abusu sexualak kontatzera. Baina ordurako berandu zen. Kontatu eta bere buruaz beste egin zuen, azkenean bere burua sendatuz.

Euskal Herrian eskoletako hezkuntza egitasmoetan txertatutako sexu heziketako ikasgaiak behar ditugu, Haur Hezkuntzatik bertatik hasita. Ikasgaiotan haurrei gaiok nola aurreikusi irakatsi beharko genieke, beraien gorputza nola zaindu eta maitatu, baita batzuetan maitasun batzuk maitasun gaixoak izaten direla ere. Beste gai batzuen artean, abusu sexualen prebentzioa beharrezkoa dugu, eta garaia da tabu asko landu eta sekretismo gaixok azaleratzeko!

Eskerrik asko EAEko arartekoari, pasa den uztailaren 4an Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan eskainitako "El abuso sexual infantil. Una realidad compleja que interpela a toda la sociedad" ikastaroarengatik. Oso interesgarria izan zen.

Denon artean indarrak batuz, ea minbiziok ere sendatzen saiatzen garen. Izan ere, gure haurren osasuna jokoan dago! •



Herritarren %10-20 inguruk jasan dituzte sexu abusua haurtzaroan. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. FOTOCAR FUNTSA. RICARDO MARTIN

1930EKO UZTAILEKO ERROMERIA

1930. urteko uztail amaieran Euskal Jaiak ospatu ziren Donostian. Igandez, uztailaren 27an, Zubietan errebote partida bat jokatu zen Gipuzkoako selekzioaren eta Ipar Euskal Herriko selekzioaren artean. Azkenean, Gipuzkoa garaile. Bazkaritan eta bazkal ostean bi selekzioetako ordezkariak nabarmendu zutenez, «Pirinioek ez ditzatela euskaldunak banatu, alderantziz, batu ditzatela herri bakarreko biztanle diren horiek, herri euskaldunekoak, alegia». Arratsaldean erromeria izan zen Lasarteko hipodromoko belazeetan, eta jendea bertara trenez, motoz, autoz eta baita kamioiz ere hurbildu zen. Lepo bete ziren hipodromoko belazeak, eta, garaiko prentsak nabarmendu zuenez, saltoak, dantzak, irrintziak eta kantuak izan ziren festa hartako protagonista. Dantzarien desfilea ere izan zen, Ansorenaren txistulari bandaren laguntzarekin. Iru-dian, erromeriara gerturatu ziren zenbait herritar.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*